

BAI INDUSTRIARI,

Busturialdeak industria behar du. Egungo egoera tamalgarria da. Berton, industria asko galdu egin da eta egunero 1.850 langilek kanpora irten behar dute fabriketan lan egitera eta beste 400ek lanik ez dauka.



Muxikan burutu nahi duten industrialdea, nekazaritza lurretan egin nahi dute. Azkeneko urteotan Busturialdean, baserriarren %68,7 galdu da, Bizkaian gehien galdu den eskualdea da. Nekazaritzan hasi nahi duten gazteek berriz, lurra eskuratzeko zailtasun itzela daukate, are gehiago nekazaritza lurretan industria eraikitzen bada.

Urdaibai, babesgunea da. Babesgune hau, berton bizi eta lan egiten dugunon ardura da eta arauak denontzat dira. Nekazaritza lurra, nekazaritzarako eta erreka bazterrak babestu beharreko eremuak dira, Muxikan zein beste edozein herritan.

Urdaibaiko arauak eta planek argi esaten dute: Industrialde berria egin aurretik dagoena egokitu eta berreskuratu behar dela, Gernikako ibarraren kasua da, 15Ha-tan eremu libreak eta pabiloiak erabat itxita eta zaharkituta daude eta.

BAINA.....

Urdaibai, babesgunea edo batzuren espekulaziorako paraisoa? Eusko Jaurlaritzaren SPRILUR enpresa publikoak, Muxikako lurra 2.500 pta-tan erosi, gero udalari esker berkalifikatu eta automatikoki 8.000 pta-tik gorako balorea duten lurra lortu du. Irabazi garbiak baina zintzotasunik ez.

Industria gune hau ez da proiektu serio bat. Industriagune proiektuak 2000. urtean 233 Ha zituen eta laister egin ezean, Busturialdea betiko alperrik galduko zela aldarrikatzen zuten promotoreek. Lau urte pasatu dira eta proiektua murriztuz joan da, 85 Ha izan zituen eta egun berriz, lege arazoak medio, 59 Ha ditu. Beraz zein da benetako helburua?



Industrialde honetan ez dago lanpostu berriak sortuko diren esperantza handirik. Jakina da halakoetan, sarritan ez dela lanpostu berriak sortzen, baizik eta industriak lekuz aldatzeko eta berrizteko baino, ez duela balio izaten. Are gehiago, industrialde eredu honek lanpostuen galera ekarri dezake. Adibidez, zer gertatuko litzateke ba Gernikako dendariekin, bolo-bolo dabilen azalera handiko saltoki bat eraikitzeko asmoa beteko balitz?

EZ NOLANAHI



Industrialde hau eskualde osorako izango dela diote. Hala bada, zertarako dira orduan Busturialdeko herri askotan burutu nahi dituzte industrialdeak? Muxikan INAMarentzat beste 12 Ha, Busturian 3 Ha, Bermeon 6 Ha, Errigoitin 5 Ha.....

Honek argi adierazten digu ez dagoela inolako industria plangintzarik.

Industria jakina nahi duguna, baina non kokatu, zein tamainakoa eta nolakoa? Hor dago garapen jasangarriaren gakoa. Busturialdeak, tradizio industrial du (aintzina, zeramikagintza, burdinolak, untziolak, ea..., geroago metalgintza, kontserbagintza, plastikoen ekoizpena ea...), bai eta arrantzan eta nekazaritzan ere. Sektore hauek behar ditugu baina kalitatekoak izan behar dute, eta egungo egoerari egokitu, hau da, baliabide naturalak bere neurrian erabiliz, ingurunea zainduz, balio erantsi handiko produkzioak gauzatu, sektore ezberdinak elkartuz, langileen lan baldintza egokiak lortuz, merkantziak trenbidez garraiatuz ea...Gernikako ibarrak horretarako aukerak ematen ditu, dagoena berreskuratuz.

Herritarren eritzia ez al du ezertarako balio? Bada garaia herritarren eritzia kontuan hartzeko. Industria nahi dugu, baina ez espekulaziorik. Industria zein lehen sektorearen alde gaude, baina jarduera ekonomikoek eta ingurunearen babesak bat egin dezaten da gure helburua, posible delako.

LAB, EHNE, BATASUNA, GAI, Muxika Aurrera, Ekologia Tailerra, Zain Dezagun Urdaibai, Erlezainen elkarte...